



TOPAKETA KOLORETSUA LEITZAN

Udaberriko egunik beroenean, egun alaia igaro zuten haur, guraso eta irakasleek, IX. Topaketan 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-04-27

VIURTEA 1.419.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Gorka Apalantzak irabazi zuen I. Ñañarri Rallyesprint-a, bere Subaru Impreza WRC autoarekin. N. URBIZU

GORKA APALANTZA AZKARRENA I. ÑAÑARRI RALLYESPRINTEAN

TOLOSALDEA Eguzkipean, jende andana bildu zen ibilbidean zehar KMK 08k antolaturiko rallyan; 2. Zapirain izan zen eta 3. Lujua 6


JOSEBA TOBAR ARALAR ADISKIDEAK ELKARTEKO KIDEA

«Aralar inguruko parajeez gozatzeko egun paregabea da»

TOLOSA Maiatzaren 18an izango dira XIV Orduak; antolatzaileak lan gogorra egiten ari dira 4-5



A. OTERMIN



Goizean goiz hasi eta gauera arte Usabal leporaino beteta egon zen. E. EZBIZA

Eguzkiaren izpien babesean igaro dute 600 lagunek Usabalgo jaialdia

TOLOSA Bigarren edizioan ere, Gipuzkoa Encounter oso arrakastatsua izan da 7

Aralar paper fabrikako sute batek kalte handiak eragin ditu

AMEZKETA Makina batek su hartu zuen fabrikatan 6

Hyreseko Olinpiar Astean 49er mailan garaile izan da Xabi Fernandez

IBARRA Medal Race-n 3. postua egunik lortu du 6

arte batxilergoa

I.E.S. USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA B.H.I.

Apirilaren 29an, 18.30etan
BILERA INFORMATIBOA

USANDIZAGA - Felga 76, I.A. Donostia - tel 943454188

B Blogteka 

Elkarbizitza behatokia martxan

Aste honetan Samaniego ikastetxeke elkarbizitza behatokia martxan jarri da. Behatoki hau ikastetxeke elkarbizitza kudeatzeko organoa da eta harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria erakitzen laguntzea du xedea.

Bertan Samaniegoko estamentu guztiak ordezkaritza dute, hau da, ikasleak, gurasoak, langile ez irakasleak eta irakasleak.

Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/bl/ogak/samaniego>

Adimen emozionala

Bihar Hirukide-Jesuitin ikastetxean, Adimen Emozionalari buruzko beste ikastaro bati hasiera emango zaio. Hau, gai honetan formazioa jasotzeko interesatuta dauden ikasle gurasoei zuzenduta dago. Adimen Emozionalak interes handia piztu zuen bere garaian; denboraz geroz, badere gurean pil-pilean dago oraindik (...).

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/bl/ogak/hirukide>

Bi dimentsioetako munduan



» Iritzia

Iraitz Lizarraga
Uzturretik

Bi dimentsioetako munduan mugitzen gara geroz eta gehiago: oraintxe bertan pantaila aurrean nagoela, gogoeta hori datorkit. Geure begiak geroz eta ohituagoak daude bi dimentsioetako irudietara eta pantailara: telebista, ordenagailua, zinema, mobilak, bideo-kontsolak, agenda elektronikoa... Pantailak, pantailak eta pantailak... Errealitate berri bat sortu dugu, errealitate planobat, bi dimentsioetako, eta errealitate izaten jarraitzen duen arren argi dago elementu asko galtzen direla: hiru dimentsioen interpretazio bat dira bi dimentsioak, par. Eta honen batera menpekotasun berri bat sortu zaigu: ihada pantaila-adikzioaz hitzegiten ari dira siko-

logo, mediku, soziologo eta hezitzaileak. Betiko moduan haur eta gazteak dira menpekotasun honetan bete-betean erortzen direnak: edozein gazte telebista aurrean egiten ditu jatorduak, eskolan ordenagailua oinarritzko tresna bihurtu da, eta egunerokotasunean baita mobila ere; honi bideojokuetan, interneten txateatzen edo *youtube* bezalako pasatzen duten denbora gehitzen badiogu, esan daiteke gazte hauen begiak eta burmuina ohituagoak daudela bi dimentsioak irakurtzera; honek dakartzan ondorioekin: errealitate artifizial honetan ederki manejatzen dira baina zer gertatzen da hiru dimentsioetako errealitatearekin topo egiten dutenean? Nola aurre egin pantaila agertzen ez diren sentimenduei, harreman pertsonalei, gatazkei?

Nire ustez heziketan dago gakoak: argi dago ezin dugula pantailen inbasioa haur ukatu eta zenbait gauzatarako praktikoa eta lagungarriak direla ere aitortzera behartua nago, baina hauen erabilerrari buruzko heziketa bat garatzea oinarritzkoa da pantaila-mania honen hedapena eten nahi badugu.

Betikoan gaudela; progresuaren alde onak eta eraginkorrak hautatzen ikasi behar dugu eta gainontzekoak saihestu. Nola egiten da hori ordea? Auskalo! Norberaren esku dago zentzuzko erabilera bat egitea eta norberak ikusi behar du non dituen mugak. Haur eta gazteentzako kasuan zailagoa da noski; horregatik garrantzitsua iruditzen zait eskolan, etxean eta orokorrean heziketan parte hartzen duten eragile guztietan zentzuzko erabilera honen aldeko kontzientzia zioa egitea.

Niri dagokidanez, antzerkiaren munduan mugitzen naizenez, komeni zait hiru dimentsioen defentsa egitea pantailen nagusitasunaren aurrean; zinea ez dago batere gaizki, antzerkian lortu eta transmititu ezin daitezkeen hainbat sentsazio bizitu daitezke, baina antzerkiaren batbategotasuna, harreman zuzena eta izaera efimeroak ematen dion xarmarik ez du. Pena litzateke pantailen inbasioa majia hau zapuzteraino iristea. Pena litzatekeke baita ere, geure eguneroko harremanetan pantailak ezinbesteko filtro bihurtzea. Gure esku dago...

Eguraldi onak eta temperatura altuak erosle ugari erakarri dituzte azokara

Azoka » Eskaintza guztiz udaberrikoa izan zen; baba eta patata berriei batera, ilarra oso baloratua izan zen.

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak eragin handia izan zuen Tolosako azokarengan. Erosle asko izan ziren eta giroa oso alai izan zen goiz osoaren zehar. Salmentak ere honen arabera, alaiak eta ugariak.

Eskaintza dagoeneko guztiz udaberrikoa da, eta piskanak gora dihoak. Atzo baba eta patata berria asko izan zen, eta hauekin ilarra, egun hauetan oso baloratua.

Perretxiko zerrenda ere gora dihoak; ziza asko dago dagoeneko, ia gehiena bertakoa, eta kanpoko onddo asko ere badago. Guzti hau prezioen jaitsiera erakarri du, eta atzo ziza 12 eurotik 24 eurora arte saltzen zen.

Berdura plaza jendez gainetza

Berdura plazan ere jende ugari ikusi ahal izan genuen, bai baratzarako landareen postuetan, baita apaingarriko landareen postuetan.

» ATZOKO AZOKA

Merk. Gares.

Berdura plaza
Landareak

Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabelina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelia	4,50	-

Bertako produktuak

Perretxikoak

Ziza	12	24
Onddoak	30	-
Fruta		
Matxakana	6,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Baba	5,00	-
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzurria	16,00	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Baratzuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

A Argazki zaharra



Gorostidi, harria altxatzen

ADUNA » Gaur Gorostidi Harriaren II. Txapelketa egingo dute Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza harri-jasotzaileek, 18:00etatik aurrera, Adunako frontoian. Iñaki Gorostidi adunarrak 77 kilo pisatzen zituela esku batez 185 kiloko harri zilindro zaharrekin duela 26 urte egindako marka

gogoratuko dute bigarren edizio honetan. Iaz, bi eskurekin 208 kiloko altxa zuen. Harri hori altxa beharko dute gaurkoan. Argazkian, Gorostidi berak 1987ko uztailearen 31n harri zilindroarekin eginiko erakustaldia ikusi daiteke. NOSOTROS LOS VASCO, JUEGOS Y DEPORTES II (LUR) LIBURUTIK

Bihar Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Maiatzaren 1a ere ostegun honetan ospatuko da; egun hauen harira, ELA eta LAB sindikatuko eskualdeko ordezkariak langileen egungo egoeraren inguruko hausnarketa egin nahi izan dute.

Apirilak 28: Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna

» Iritzia

Oihana Lopetegi
LAB sindikatua

Oso balantze kezkarria utzi digu lan istripuei dagokionez 2007. urteak. Euskal Herrian 62407 lan istripu arin izan ziren, 516 larri eta 125 langile hil ziren. 2008ari dagokionez dagoeneko 33 langile hil dira. Errealitatea hau izanda, laneko segurtasun eta osasunaren nazioarteko egunak Salaketa eta elkartasun egun bat izan behar du.

Elkartasuna larriki zauritutako edo hildako langileen senideekin. Instituzioek utzikeria erakusten dute langile hauen familiekiko, ez

dago inolako sentsibilitaterik, ba-besik... ez dago oroigarri eta omenaldirik ondorio hauek jasaten dituen langileriarentzat, ezta hildako langileen senideentzat ere. Administrazioek zuzenean estatistika huts bilakatzen dituzte, enpresarioek langileak utzitako hutsunea beste batekin betetzen du eta euren senideak laguntza eske ibiltzera eta ondorio guztiak pairatzera kondenatuak geratzen dira.

Zergatik dute ordea jarrera hau administrazioek, instituzioek? Enpresarioa ez interpelatzeko, enpresa honen edo haren propaganda txarrik ez egiteko. Hau da, enpresarioa babesten da hildako langilea eta bere familia alde bate-

rauzten denean. Hori bai, plan estrategiko asko dituzte, baina enpresetan ez dute inolako presio-rik egiten, ez dituzte inspektzio eraginkorrak egiten...

Hortaz, lehenengo eta behin lan zentro bakoitzean hildako langilearekiko klase elkartasuna bizirik mantendu nahi dugu.

Salaketa. Nor eta nortzuk daude lan istripuen atzean?

Laneko ezbehar kopuruaren arrazoa egiturazkoa da. Lan baldintzak dira arazo nagusia. Prekarietatea, azpikontratazioa, lan erritmo azkarrak... arazoaren erroan daude. Prebentzioa, inspektzioa, zehapenak... beharrezkoak izango dira, baina lan harre-

manen ereduari, lan baldintzei eta prebentzio ereduari ez bazaio heltzen arazoak bere horretan iraungo du.

Eta hemen ezin da erantzukizunen banaketarik egin. Esan beharra dugu enpresarioak direla ahalik eta mozkin gehienena bila joanez kontratazio eta lan metodo horiek erabiltzen dituztenak, ez dutela seguritatean inbertitzen horrek kostu bat suposatzen diela uste dutelako. Administrazioek, bestalde, praktika horiei estaldura ematen die administrazio publiko delako aipatu praktikak gehien erabiltzen dituen, hain zuzen.

Hau guztiagatik, gure sail sindikaleatik ordu beteko lanuztea bultzatuko dugu eta lanuzte hau lan zentroetan partikulariki eta globalki gertatzen denaren inguruko eztabaida eta protesta ordua bilakatuko dugu *Lan batzuk hil beste batzuk kondenatu* leloarekin.

ministratioak kontrakoa esan, ez da lehentasun. Aldiz, propaganda bai egiten da eta asko; edukirik gabeko planak aurkeztuz, prentsaurrekoak emanez, iragarkiekin... Baina benetako arrazoiak ekiditeko intentziorik ez, zergatik? Interes komun bat dutelako enpresari eta administrazioak, produktibitatea eta irabaziak handitu, konfrontazioak lekurik ez. Borondate politikoa agerian.

Hori guztiagatik, aldarrikapen eguna da. Kalera atera beharreko eguna, argi dago, langileok gure enpresetan egunero osasuna eta segurtasuna aldarrikatu behar ditugula ez da egun batean bakarrik gogoratu beharreko data. Horregatik ELAk argi dauka, salaketa, errebindikazioa eta mobilizazioan dago gakoa, ekintza sindikalean. Gure osasunak merezi du!

E Eztabaida info

Ibarrako Udalak haur eskola kontsorzioan sartzeko erabakia hartu du. Zein da zure iritzia?

■ Ainhoa. «Bart gauean lehenengo aldiz pleno batean egon nintzen. Eta lotsa sentitu sentitu nuen, eta negargurea. 1. Guk aukeratu ez dugun udal korporazio bat dugu. 2. Ez dakite ezer hezkuntzaz. 3. Haur eskola Partzuergoan sartzea inposatu nahi digute beren erara inolako azalpenik gabe. 4. Eta larriena, ez dute herriaren hitza eta nahia errespetatzen. Berestrik gabe, Haur eskola aurrera».

■ Ainara. «Herrian hazi eta hezi. Nire gurasoek lan handia egin zuten hau posible izateko eta nirekin lortu zuten, ni ere saiatuko naiz nire seme-alabekin hau posible izaten ibartarra sentitzen, bertako lagunak izaten, herriko ekintzetan parte aktibo izaten, azken finean herriari bizia ematen. Herria ordezkatzeko omen du udal Honelako Ibarra nahi al dugu? Atzo gauean gertatutakoa lotsagarria izan zen benetan, haurrak udaletxean, herriko diktadoreak beti bezala beldurra sartzeko herriko ordezkariak baituak (bai, irten ezinean, beste hainbat jenderen antzera sekuestratuak)... guzti hau nahi al dugu? Horrelako Ibarra nahi dute, beraien ideologia bakarrekoak, abertzaleak baina bandalistikak, gertzurkiak, diktadoreak, beldurra sartzeko dutenak eta egiaren garaia iristen denean ezer egiten ez dutenak. soinu asko eta lan gutxi, mehatxuekin dena lortu nahi dutenak. ez dakit zer pentsatuko duzean, baina guztiak ez gara horrelakoak, baina non zaudete? Ibarra jende normala bazegoela uste nuen baina inon ez da ageri, ea esnatzen garen eta gure zerbaite egiten dugun. honek, zein herri ordezkatzeko du? Plenoan garbi ikusi zen herriak indarra duela nahiz eta erantzuna lotsagarria izan. Ez dugu amore eman behar denok elkarrekin Haur eskola aurrera».

Apirilak 28: aldarrikapen eguna

» Iritzia

Egoitz Iturbe
ELA sindikatua

Beste urte batez ere iritsi da apirilaren 28a, Segurtasun eta Lan Osasunaren nazioarteko eguna. Langileontzat ez dago ezer ospatzerik, aldarrikatzeko aldiz, asko. Hego Euskal Herrian 2007 urtean bajarekin guztira 62.039 lan istripu eman ziren eta 108 langileek bizitza galdu zuten lan istripu baten ondorioz... Eta egoerak 2008 a hasita ez du hobera egin, dagoeneko 32 langile hil dira.

Lan Osasun eta Segurtasunari buruz ari garenean ezin ditugu

Gaixotasun profesionalak ahaztu. Zentzu honetan egoera ere oso larria da eta. Dena ezkutuan mantentzen da, egoteagatik z dago estatistikoki datu fidagarriak ere zenbat diren azaltzeko. Baina arazoa ez da hor bukatzen, egin diren lege aldaketek ez dute egoera hobetu. Gaixotasun profesionalen zerrenda oso mugatua izaten jarraitzen du, lanak eragindako gaixotasunen portzentaia handi bati ez zaio bere izaera profesionala onartzen. Egiaztatua dago, gaixotasun profesional baten ondorioz, lan istripuz baino langile gehiago hiltzen direla.

Guzti hori gutxi balitz, mutuek ere ezer esana dute egoera hone-

tan. Ohikoak dira aplikatzen dituzten praktika txarrak: lan istripua edo gaixotasun profesionala ez onartuz, altak denbora baino ari-nago emanez, bajaran dagoen langileari jarraipen estua eginez... Beraien irizpideak argiak dira, langile lehena baiden lanera bueltatzea eta kostu ekonomiko txikiena suposatzea, hori bai Osasuna!

Eta guzti honen aurrean enpresak lasai daude. Prekarietateari ez zaio aurre egiten, enpresek legea behin eta berriz hausten dute, inspektore gutxi daude, gero eta inspektzio gutxiago egiten dira, baliabide ekonomiko eta teknikoak ez dira inolaz ere handitzen, lan osasun eta segurtasuna nahiz eta ad-

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

E Eskertza

Orain egun gutxi Beasainen hil zen
JOSE ANTONIO IBAIBARRIAGA
(G.B.)

Bere sendiak oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

Beasain, 2008ko apirilaren 27a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Talosa (Bellatokia)

Elkarrizketa

JOSEBA TOBAR > Zuzendaritzako kidea

XIV Orduko Ibilaldia >> Jendea gogotsu dago maiatzaren 18a noiz iritsiko zain. Lau urtean behin ospatzen den ibilbide honek, xarma berezia du inguruko mendizaleentzat.

ARRATE OTERRIN

Udaraz geroztik, antolatututa, XIV orduak prestatzen buru-beltzari lanean aritu bada ere, oraindik ere bada zehar egina, Joseba Tobarak (Tolosa, 1976) azaldu digu. Mendizaleek ibazordu edota erroka handia dute maiatzaren 18an Aralar mendietan baina...

Nola joan da antolatzea?

Udara pasa ondoren buru-beltzari murgildu ginen prestatketan. Ibilbidea berri berria izanik, bidetan eragotzeki edota oharriki ez bada, ez da hontan denbora gehiagorik galtzen. Lan gehiago izaten da bestelako kontuekin...

Lagun asko ibili zarete antolatuta lanetan?

Ngustaki, sei lagunekoa taldeetara bat aritu gura izanean, baita zehar, gutuz gain, gura lan taldearen inguruan, eta egunetan bertan, ibilaldiko lanetan, denera 300 bat lagun arituko gara.

Nafarroa eta Gipuzkoa... Elkarrizarteko, ezin kusia ala maiztasuna?

Ibilbide berriaren proposazioa haren artea izateak, lanak zailtzen ditu. Egi gobernu dira jokoan, beraz, biak inar hitz egin behar da. Laguntza eskertzen hasi, eta eskari bat Gipuzkoan egin behar da, eta besteak, berria, Nafarroan...

Azken ibilaldietan, parte-hartzaile kopuruak gora egin du.

Uste dut, orokorrean izugarrizko



A. OTERRIN

«Aralarko parajeez gozatzeko egun paregabea da»

eskarria dagoela, orokorriki mendiri iheldi hontan, kirio guzietan baidak. Kiriolarekiko zaletasun handiegi dago. Ingaruko herrietako kiriolarekiko ere gutxiak daude. Horretaz gain, bereziki, proba hau erakargarri egin duena, 4 urteki...

Korrika egin nahi duenak, hobe du Aizkorriko mendira maratoia egin; hau mendira marxia neurtua da

Bero bada, gorputza asko hidratatzeaz gain, jateaz ere gogoratu behar gara, ahuleriak jo aurteki

Oinetakoak eta jantziak, ezinbestekoak dira aurteki erabilak eta gozatuak izatea

behin ospatzen deneko kontua da. Hemenago mendizaleentzat, besteak, Aralar, oso mendierazita, ez da inguruko probek, mendizale asko erakaritzen dute. Ezan hieko, orokorkean, jendea, geroz eta erroka gogorragoan bita dabiltza, eta proba hau 14 orduko izatea oso interesgarria delakoentzat.

Urtean zehar egiten diren marxeetan jende gehiago dabil aurteki?

Bai, asko nabari da aurtun XIV orduak ospatzen direla. Batetik, urterotik mendira marxeetan ibiltzen den mendizaleek, entrenamenduraziz, edo, mendira marxia gehiago egiten dituzte, eta bestetik, urtean zehar jentzen bere kabur ibiltzen den horri, gainerako mendira marxeetan ere parte hartzen da. Beraz, parte-hartzaileen kopurua hirukoitzu egiten da.

Mendian gutxi ibiltzen denarentzat, XIV orduak egin aurretiko prestatketak, nola joan behar du?

Mendian gutxi ibiltzen dena, poliki-poliki hasi behar du. Kontua da da XIV orduko probaren aurretik hamar orduko beste proba bat egitea eta kin...

tasun ezean ere dago gehiegia afiduak, guzter bezala, neurritan. Oso garrantzitsua da, bezperatik, norainan baino gehiago edanaz, oso ongi hidratatzea. Eta era berean, ibilbidean zehar edota aneguneean zerbait jatea. Anoguneean nahiko janari bada ere, komenigarria da motolan jatekoa edota edateko eramatea. Kontuan hartu behar da, goizean oso goiz jaituta izango gurea. Eta gutxi gosatu edota anoguneari iritsi eta jatekorik nahiko ez bagenu, bidean zehar jan eta edan egiteko eskura zerbait izan beharko genuke.

Maikarekin ohitura ez dagoenak, hobe du hau etxean utzi; mesede baino traba egingo baitio

Egun horretan mendiak jasaten duen kaltea txikia da, urteko gainerako egunekin alderatuta

egiteko, ez da zama handiegia erantzen komentari. Ongi antolatuta, da Aurtegi oparia motela txiki bat da, eta oso txikia indutien bazazgi...



A. OTERRIN

XIV orduak Kilometroak 08ren lagun

Irura >> Kilometroak 08ko zuzendari dago jaso duen laguntza guztiaren eta XIV orduan izango da bere eskeroan adierazteko.

AUTERRIN

Aurtengo urtean, bada inguruan bestelako garrantziko zita. Oraindik urte erdila faltar bada ere, Kilometroaren usaina zabaldu da Irurako herriari; eta herritarrek, buru eta bihotzari diralaen urriko lehen egunean handi kopuruetan. Egun handi horren aurretik, lan ugari egin behar da, ordea, eta urtean zehar makina bat ekintza...

antukta. Azken hilabeteetan egin diren ekintza hauekin, Kilometroaren oihartzuna inguruko herrietara ere hedatu da, eta hermetik hila-bete eskasera. XIV orduak ibilaldian presente izango da.

Euroa Kilometroak 08entzat

Aurtun XIV orduko ibilaldia ospatzen dela aprobetxatuz, Kilometroako Ikuskizun Batzordea, Aralariko Adiskideak Elkarrizartekin harremanetan jarri zen. Aralariko Adiskideak, haien aholkunean berran, edozertan laguntzeko prestatu ahal du ziren. Laguntza hori emateko modarik egokiena, inskripzioarekin zenbaki boronbilitu bat egin, eta euro bat, Kilometro...

gaian beste albulurik ematen lan, arina den eta eskala bestetan duen oinetako aukeratu konke niki.

MOTILAK?

Motila ahal den eta gurdi bate behar da. Horrenbeste irudikatzen duen ibilbidean bide bati...

Hondakinek birziklatzera bideratuko ditugu; zaborrak ongi sailkatuta botatzea futezkoa da

Makilarekin ohitura ez dagoenak, hobe du hau etxean utzi; mesede baino traba egingo baitio

Egun horretan mendiak jasaten duen kaltea txikia da, urteko gainerako egunekin alderatuta

egiteko, ez da zama handiegia erantzen komentari. Ongi antolatuta, da Aurtegi oparia motela txiki bat da, eta oso txikia indutien bazazgi...

ere, bertan sartu dezagun piztu nahiko litzateke. Jateko zerbait, ura, zira, kapela eta aldatzeko elastiko. Gaitza gurki motela, beraz...

Motilak?

Motila ahal den eta gurdi bate behar da. Horrenbeste irudikatzen duen ibilbidean bide bati...

Hondakinek birziklatzera bideratuko ditugu; zaborrak ongi sailkatuta botatzea futezkoa da

Makilarekin ohitura ez dagoenak, hobe du hau etxean utzi; mesede baino traba egingo baitio

Egun horretan mendiak jasaten duen kaltea txikia da, urteko gainerako egunekin alderatuta

egiteko, ez da zama handiegia erantzen komentari. Ongi antolatuta, da Aurtegi oparia motela txiki bat da, eta oso txikia indutien bazazgi...

IBILALDIEN GOZATZEKO... Mendian jende gehiegia, akaso...

Korrika prestatzaileentzat eta ozterako baliok kontrol guretan ere, denbora baino lehen igarotzen dena, ez zaito zuzena setelaz. Ibilbidea korrika egin nahi duenak, hobe du hurrengo asteburuan Aizkorriko mendira maratoia egin. Baitzik, beharrezko den denbora hartu behar du. Parajeak ederteki dira, eguraldi ona lagun, ez du gu besterik behar.

Mendian jende gehiegia, akaso...

Horrenbeste jendekin, azkenean mendira emandako egura nabari izaten da. Baina ibilbidean egin da, eta zehar mendira jentzen da eta, azkenean, mendiak jasaten duen kaltea, txikia da. Urtean hurrengo urtean bestelako ibilgailu asko ibiltzen da toki horietan, eta hauek, oker handiakoak egiten dituzte Bestelako kontu...

Zabor asko pilatzen da?

Ozikorrean, mendizaleak kontu izaten da mendietan. Aurtentan-tolatutarak, ekimen berri bat jarri du martxoan, egun horretan ibiliko diren hondakinek, birziklatzera bideratuko ditugu. Anoguneean kaltetak eta ontzirik izango dira, eta hauek bide jakin al izango dugu, zer, nor, eta bota. Geroz eta kontzentratuagoak gude gailu horien, eta modu zikinen dabiltza, berriantentzia emateko aurrera izan, bada, Gaitza, egunaren amaieran, dena jaso eta kurtintzatzer arnaburukopura. Zehar gogunetan ere, buelta bat emango zira ibilbide osoari, geratu diren azken zaborrak biltzeko.

Erantzuna, baina...

Aralarko Adiskideak, oso harremana egin zion Ikuskizun Batzordeari, honetaz laguntza eskatu zion. Diru bideratzeaz gain, inskripzioaren (funtzioak) baxen, nahiz maiatzaren 18an, ibilbideko guretik hoberen etan, denda jarteko edota bestelako kontuak antolatzeko aukera eskaini zion. Mendizaleen erantzuna, denda jarteko edota bestelako kontuak antolatzeko aukera eskaini zion. Mendizaleen erantzuna, denda jarteko edota bestelako kontuak antolatzeko aukera eskaini zion. Mendizaleen erantzuna, denda jarteko edota bestelako kontuak antolatzeko aukera eskaini zion...

Buru-bihotz arri diren arren...

Gorka Apalantza gailendu da Kilometroak-en aldeko rallyan

Gizartea » Eguzkia, festa giroa eta motor hotsa izan ziren nagusi Alegia, Orendain, Abaltzisketa eta Amezketako errepidean.

ERREDAKZIOA

Motor hotsa eta jendearen animoak entzun zitezkeen atzo Amezketan, Alegia, Abaltzisketa eta Orendain arteko errepideetan. Bata isiltzen zenerako bestea hasten zen, etengabeko burrunba batean. Eguraldiak lagunduta, jende ugari bildu zen I. Nañarri Rallyesprinta ikusteko. Eguzkiak gogor jotzen zuelarik, bat baino gehiago izan ziren, aurpegia nahiz sorbaldak gorrituta etxeratu zirenak. Dena den, honi aurre egiteko ongi hornituta zeuden ikusleak, ur botilak eta garagaridoak eskuan hartuta. Azpimarratzekoa da beraz, zirkuituaren inguruan bizi zitezkeen jai-giroa. Azken batean, horrelako ekitaldiak, ohikoa den bezala festa bihurtzen baitira. Gainera, batzuk bezperatik hurbiltzen dira zirkuitura, eta han lo egin, errepidearen ondoan «toki on bat» hartzeko, horrela adierazi zuten antolatzaileek.

Artetxe, podiumetik kanpo

Atzoko ekitaldiaren helburuetako bat ikusgarritasuna eskaintzea bada ere, ezin da ahaztu lasterketa

bat dela, eta parte-hartzaileen helburua irabaztea dela, eta ez bakarrik jendearen txaloak eragitea. Honenbestez, atzokoan Gorka Apalantza izan zen garaile. Hau Subaru Impreza WRC batekin ateratu zen. Kopilotu lanetan bere anaia Aitzol Apalantza aritu zen. Lasterketa ondoren Errezilgo gidariak adierazi zuenez, «gustura aritu naiz, motibazio handiarekin. Gainera ibilbidea asko gustatu zait».

Bigarren postuan Joseba Zapirain sailkatu zen. Honek Borja Aguado zuen gidari-lagun eta Peugeot 206 batekin ateratu ziren errepidera. Podiumeko hirugarren koska Xabier Lujarentzat izan zen. Scoda octavia batekin hartu zuen parte gidariak, eta alboan Txiki Burgos izan zen.

Aurreikuspenen arabera, hiru hauek ziren irabazteko aukera gehien zituztenetakoak. Baina aipatzekoa da, podio horretan Santi Artetxe falta zela. Jende askorentzat bera baitzen lasterketako faboritua.

Bideoak webgunean ikusgai

Antolakuntzan aritu zirenek lan fina egin zuten, ibilbidea ondo markatuta eta gutzia ondo zuzendurik egon baitzen une oro. Rallyaren bideoak eskualdeko egunkariaren webgunean daude ikusgai: www.tolosaldeko-hitza.info.



Giro bikaina zegoen errepidearen inguruan; irdudian Abaltzisketako herrigunea. NEREA URBIZU



Hirugarren postuan Xabier Lujua saillatu zen, eta bigarren, berriz, Joseba Zapirain ailegatu zen. NEREA URBIZU

Laburrak

Xabi Fernandez garaile izan da 49er mailan

IBARRA » Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek Hyreseko (Frantzia) Olinpiar Astean 49er mailan garaipena lortu zuten herenegun. Medal race-n hirugarren postua lortzeagatik irabazi dute proba hori.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Promotora.** Promotorak behar dira supermerkatuan lana egiteko. C.V. 3229 Donostia.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

SALGAI

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.

Aralar paper fabrikan sutea izan da

AMEZKETAKO » Sute batek kalte handiak eragin zituen atzo Aralar paper fabrikan. Makina batek su hartu zuen, Bartolome Unaren auzoan dagoen enpresan. Ondorioz, suteak kalte handiak eragin zituen enpresan. Ertzaintzak 15:45a aldera jaso zuen deia eta suhiltzaileak heldu zirenerako bertako langileek sutea ia-ia kontrolpean zuten. Beraz, arratsalderako, ez zegoen ia sutearen aztarnarik. Garai horretan jende asko zegoen inguru horretan, Nañarri rallyesprinta baitzegoen, eta momentu batean, jendeak rallyesprinteko autoren batek sua hartu izan zuela pentsatu zuen, Abaltzisketatik bertatik ikusten zen kea iluna eta handi xamarra baitzen. Aralar paper fabrika Amezketako zentroan bertan dago. Argazkia HITZAREN webgunean ikus daiteke.



Senperena GRAVN finalera pasa da

PILOTA » GRAVN Pilota Txapelketan gipuzkoarrak atzo aritu ziren 22 urte azpikoan mailan eta nagusien mailan, finalerdietan, banaka nahiz binaka. Bizkaitarren aurka jokatu zuten eta hauek izan ziren Beotibaurren izan ziren emaitzak: Senperena goiazarrak 22, Gilek 21. Urberuaga-Larrinagak 22, Intxausti-Uzku-

dun gipuzkoarrak 21. Zabalak 22, Bengoetxeak 1. Nagusien mailan Elurbe-Irureta bikoteak Beitia-Lopezzen kontra jokatu behar zuten, baina oraindik ez zuten partida bukatu hitzako erredakzioa itxi zutenerako. Beraz, momentuz, finalean Senperena ikusi ahal izango dugu Nafarroaren kontra. N.U.

Ordenagailuen itzalpean igaro dute eguna askok

Gizartea » Goizean goiz hasi eta gauerdia arte ibili dira nabigatzen Gipuzkoa Encounterreko parte-hartzaileak.



600 lagun bildu dira Usabal kiroledegian, informatika topaketan. ESTI EZEIZA

ESTI EZEIZA

Asteburuak eta denbora libre aigartzeko aukera asko daude. Atzoko eguraldia ikusita batzuei harrigarri egiten bazaie ere, 600 pertsonen Usabal kiroledegian barruan igarotzea aukeratu zuten. Izan ere, egun hauetan zehar, informatika zaleen «paradisua» da Tolosa. Bertan ari baita ospatzen Gipuzkoa Encounter.

Etzeko ordanagailuak eta eserleku erosoak hartuta etorri dira Gipuzkoatik nahiz kanpotik bisitariak. Bakoitzak bere txoko kuttunari, «ezinbesteko gauzeekin» hornituta zuela ikus zitekeen. Alde batetik, falta ezin zen ordenagailu «boteretsua» eta bestetik, panpinak, edaria, jatekoa, lentilletako ura, mantak, kuxinak... Parte-hartzaileen iritziak, aisia igarotzeko

modu onuragarria da, eta jendea ezagutzeko aukera ematen du, «ez da jende askok uste duen bezala, gainontzekoekin ere egoten gara, eta harremanak egiteko balio du ekimen honekin». Internautek jaialditik azpimarratzen duten beste ezaugarrietako bat da, bertako giro ona, «beste topaketa batzuetara joan izan gara baina ez da horrela giroir egoten».

Jolasteko aukera

Kanpotik etorri direnez gain, herritarrek ere badute Gipuzkoa Encounterrean parte hartzeko aukera, nahiz eta aurretik izena eman da ez egon. Izan ere, Usabal kiroledegian sarreran bideojoku ezberdinak jarri dituzte, nahi duen orok bertan jolas dezan. Honenbestez, edonor joan daiteke eta ikusi topaketako giroa.

«Internetez harremana dudan jendea topatzen dut hemen»

NEREA ALEJANDRE » Gipuzkoa Encounterreko partaidea

Aisia » Gipuzkoatik ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat txokotatik ere etorri da jendea informatika topaketara.



ESTI EZEIZA

E. EZEIZA

600 lagun inguru hurbildu dira asteburu honetan Tolosara, Gipuzkoa Encounter informatika topaketan parte hartzera. Internauta hauetatik %8 emakumezkoak dira, eta gainontzekoak gizonak. Neska horietako bat da Nerea Alejandre bilbotarra.

Horrelako jaialdi batean parte hartzen duzun lehen aldia al da?

Ez, iaz ere etorri nintzen Tolosara, eta honez gain, hiru aldiz joan naiz Bilbon ospatzen den Euskal Encounterterera.

Zergatik gustatzen zaizkizu horrelako topaketak?

Alde batetik, dagoen giroagatik. Urtean zehar internet bidez harremana dudan jendea topatzen dudalako. Bestalde, etxeko ordenagailuetatik jaistea zailak diren gauzak deskargatzeko aprobetxatzen dut. Gainera beste zenbait tokitan aurkitzea zailak diren gauzak topa ditzazkezu, esaterako, Asiako bildumak.

Beraz, hemen zaudetenetako asko ezagutzen zarete?

Azken batean, mundu hau gustuko dugunak elkartzeko gara eta elkar ezagutzeko goaz. Urtero ikusten gara, hemen ez ezik, baita Euskal Encounterrean ere.

Aurtengo topaketaren ezaugarrietako bat abiadura handiarena da.

Egia esan, gutxi garenez, jaisteko garaian ez daukagu elkarbanatzeko gehiegi. Horregatik, hegan doa. **Jendea oro har zertara etortzen da horrelako topaketetara?** Sarean jolastera edo gauzak jaisteko. Baita diseinoko lehiaketetan

parte hartzeko. Ni esaterako, denetik pixka bat egiten ari naiz. Aurtun hala ere, oraindik ez naiz ari jolasten.

Noiz etorri zarete?

Atzo eguerdian etorri ginen eta gaur berriro joan beharra daukat lanera, baina iluntzerako itzuliko naiz.

Gaur, esaterako, noiz hasi zara nabigatzen?

Lo ez dut ongi egin eta nahiko goiz jaiki naiz. Bederatzietarako ordenagailuaren aurrean nengoen.

Gaua ere hemen igaro duzu beraz.

Bai, 04:30ak aldera joanginen lotara eta esan bezala, 09:00etarako hemen geunden. Horrelako jaialdietara etortzen zarenean denbora ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen zara, eta lo gutxi egiten duzu.

Parte-hartzaileetatik %92 gizonetzkoak dira, hori zergatik ote da?

Hemen gaudenetatik, gehienok diseinuaren sektorean egiten dugu lan, edo harremana dugu horrekin. Hala, oraindik ere, sail horretan lan egiten dutenetan, gehienak gizonetzkoak dira. Hala ere, gero eta emakume gehiago ari dira sartzen teknologian munduan, nahiz eta gutxiengo izan egun.



Irudian, plazan aulki dantzan jolasten. N. URBIZU

Haur, Guraso eta Irakasleen Topaketa koloretsua izan da

Leitza » Udaberriko egunik beroenaz baliatuz, atzoko ekitaldi guztiak are eta nabarmenagoak, politagoak gelditu ziren.

NEREA URBIZU

Haur, Guraso eta Irakasleen IX. Topaketa izan zen atzo Leitza. Eguraldiak lagundu zien egun osoan zehar, eta ekitaldi guztiak ohi baino politagoak atera ziren. Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako haur eta gurasoak bildu ziren. Goizean betiko jolasak egin zituzten: zaku karrera, oskol biltzea, aulki dantza... Eta guraso eta irakasleak aritu ziren antolaketan.

Dantzarien saioa ere izan zen

eta plazan jende asko bildu zen hauen saioak ikusteko. Goizean zehar, beraz, gosea egin zuten gero denek elkarrekin bazkaria egiteko.

Leitza, Goizueta eta Aresoko Guraso Elkarteak eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak antolatu zuten eta laguntzaileak hauek izan dira: Leitza eskolako ikasle eta irakasleak, Leitza eta Aresoko Dantzari Txikiak, Leitza txistulariak, Asketa Txiki Abesbatza, Leitza Udal, Goizuetako eskolako ikasle eta irakasleak, Goizuetako dantzariak eta Aresoko eskolako ikasle eta irakasleak.

Helburu inportanteena lau herritako haurrak, gurasoak eta irakasleak jai giroan elkartzea da: argi dago, lortu egin dutela.


Laburrak

Ezker abertzaleak batzarrera deitu du

TOLOSA » Etxirako batzara deitu du ezker abertzaleak. Bilera 20:00etan izango da, Kultur Etxean. Batzar honetan, besteak beste, hurrengo hilabeteetarako erroka nagusiak aztertuko dituzte. «Bizi dugun momentu politikoaren garrantzia kontutan hartuta», bertan parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek.

Udalaren osoko bilkura izango da etzi iluntzean

TOLOSA » Tolosako Udalaren osoko bilkura izango da etzi 19:30ean. Bertan, besteak beste ondorengo gaiak jorratuko dira: martxoko eta apirilko zenbait akta onartzea; Alkatetza Dekretuen berri ematea; Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren behin-behineko onarpena eta Jose Mari Gorrotxategiren omenaldia.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ikaztegieta.** I. Dantzari Txiki Eguna 12:00etan Alegia, Alkiza, Altzo, Anoeta, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Tolosa eta Villabonako taldeen partaidetzarekin.
■ **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobus antolatuta du. Izena Udaltzaren eman behar da. 6 euro balio du.
■ **Tolosa.** Herri Batasunaren 30. urtemuga: 12:30ean Trianguloan bilkura dultzaineroekin poteotoxa egiteko eta bazkaria Oargin.
■ **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter II. Informatika zaleen arteko bilkura Usabal kiroldegian.

■ **Tolosa.** Internet Eskola Trianguloan eta Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara: 70 ordenagailu, monitorea elebidunak,...

■ **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kultur etxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, parte-hartu@baketik.org).

Ikastaroak

■ **Alkiza.** Ukenduak egiten ikaste-ko ikastaroa (intsua, kalendula, berbera, eta abar) antolatuta dute maiatzarako, astelehenetan edo asteazkenetan Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean (943 693930).

Kirolak

■ **Zizurkil.** Gorostidi Harria II. Lehiaketa Adunan 18:00etan Ostolaza eta Irigoienen artean. Ondoren Mendizabal II.a aizkolari berteranoaren marka jartzea.
■ **Villabona.** Loatzoko XVI. Igoera-Jaitsiera 10:30ean Amasan, Uxo Toki elkarteak eta Amasako gazteek antolatuta.

Zinema

■ **Tolosa.** Ken Loach-en *En un mundo libre* filma emango dute Leidor aretoan gaur 19:30ean eta 22:00etan eta bihar 20:30etik aurrera.
■ **Tolosa.** *Mi monstruo y yo* haur-errentzako filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.
■ **Villabona.** Helduentzako *No es país para viejos* filma emango dute Gurean, gaur 19:30ean eta bihar 21:30ean. Haurerentzako, *Irabazle eta galtzaile* filma gaur 17:00etatik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusi, 112.
■ **Irurtzun.** Gastarena, M. Amaya kalea, 112.

A Agurrak



7 urteren bueltan, zure urteurrena etxekoan artean eta askatasunean ospatzeko aukera izango du. Zorionak eta muxu bat. Andoni eta bere sendiari besarkada bero bat, eutsi! Zure idazkaria.



Herrian hazi eta hezten

IBARRA • Azuke kaleko 10. zenbakian, Loatzoko Musika Eskolak lokal berria dauka. 56 ikasle beraz, izango dute non ikasi. Loatzoko ikasle batzuek musikaz alaitu zuten inaugurazioa. Ibarra alkatea eta hainbat zinegotzi zeuden ere, eta haur eskolako kudeaketarekin dauden arazoengatik, hainbat herritarrek herriko Hezkuntza ereduaren alde. Erabakia atzera bota pankartekin azaldu ziren, alkateak entzun zezan. Bertan ere Loatzoko Musika Eskolako lehendakaria den Marimi Ugalde izan zen. N.U.

AVIA
Larramendi 28 • Tolosa • 943 67 48 28

txokoa
h

2 sarrera pare

Irabazleak:

- Xabier Estarbe (Tolosa)
- Geno Telletxea (Areso)



Apirilak 28 • astelehena • 16:30ean
Tolosako Beotibar pilotalekuan

**Berasaluze IX - Apeztegia
Ongay - Arizmendi**

**CAPELLAN - PASCUAL
GONZALEZ - NALDA III**

**Del Rey - Urberuaga
Olazabal - Arruti**

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

2 sarrera pare

zozketatuko ditugu!



AKABA BERA BERA
Itxako Navarra, A.B.F
ASTEAZKENA
APIRIKAK
30 • 19:00
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

Parte hartzeko, deitu goizez **943 65 56 95** telefono zenbakira.

HITZAren harpidedunentzat abantailak